



## Gaixotasun meningokozikoa

### *Zer da gaixotasun meningokozikoa?*

Gaixotasun hori ia beti bi modutan azaltzen da: meningitis legez (garuna estaltzen duten mintzak inflamatzeko), edo septizemia legez (odola infektatzeko). Gaixotasuna sortarazten duen bakteriarik meningokoko deitzen zaio.

### *Zer da meningokoa?*

Normalean pertsonen ez-tarrian bizi den bakteriarik bat da. Ehun pertsonatik hamar, eramaile sanoak izan daitezke (pertsona horiek ez dira gaixotzen, bakteriarik beren ez-tarrian daramaten arren).

Zenbait meningokoko-mota daude. Euskal Herrian sarrien agertzen dena B meningokoa da, eta gaur egun ez dago mota horrentzat txerto efikazik. Badago, ostera, C meningokokoaren aurkako txertoa, eta hau gure txertaketa-egutegian sartuta dago.

Bakteriarik hori oso ahula denez, ez ditu erresistitzen ingurumeneko kondizioak. Horregatik, ez dago ez lokalik ez tresnarik desinfektatu beharrik, ezta bestelako neurririk hartu beharrik ere ez.

### *Nola hedatzen da meningokoa?*

Eztularen bidez, doministikuen bidez edo kontaktu zuzenaren bidez, esate baterako, aho-musuaren bidez. Baina ez da erraza gaixotasuna harrapatzea, zeren, oro har, beharrezkoa da pertsona gaixoarekin bizi edo kontaktu estua edukitzea.

### *Behin gaixo bat agertuz gero, ba al dago arriskurik kasu berriak agertzeko?*

Egon badago arrisku txiki bat, gaixoarekin bizi direnen edo kontaktu estua dutenen artean kasu berriak gertatzeko. Horregatik pertsonal sanitarioak kasuak banan-banan aztertu eta beharko diren neurriak hartuko ditu.

### *Sarri gertatzen den gaixotasuna al da?*

Ez. Ez da sarri gertatzen; baina larria da. Euskal Herrian 3tik 5era bitarteko kasuak izaten dira urtean 100.000 biztanleko.

### *Zeintzuk dira sintomak eta zer egin behar da?*

Hauk dira alerta-sintomak:

- Sukar altua, orduetan altu mantentzen dena eta medikazioa eman arren jaitzen ez dena.
- Gorakoak.
- Orientaziorik-eza eta ondoez orokorra.
- Larruazalean mantxa gorriak, atzamarrekin presioa eginda desagertzen ez direnak (petekiak).

Holako sintomarik agertuz gero, kontsultatu pediatrarekin edo medikuarekin; berak baloratuko ditu sintomak, eta ikusiko du ospitalera jotzeko beharizanik dagoen ala ez. Zure medikua aurkitu ezin baduzu, joan zaitetz Larrialdietako Zerbitzu batera.

